



Eremitzako

Liturgia

1931'ko Argitaldia

Bilebaiketa edo Zirkunzizio-Jaia

Peregrinatio ad loca sancta

Eramu Igandea

Aste Nagusia

Corpus Christi-ren edo Aldareko

Sakramentu Santuaren jai-eguna

Il-en-eguna

V
77



M-8843

R-36332

ATV

18977

ĖRIARENTZAKO LITURGIA



BĪLEBAIKETA EDO ZIRKUNZISIO - JAIA



ARBELAITZ

O. M. CAP.

NEKETAKO AMA-BIRJIÑAREN IRARKOLAN.—IRUÑA'N.

NIHIL OBSTAT
Fr. Damasus ab Inza
Censor Ord.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
Fr. Carmelus ab Iturgoyen
Minister Provincialis
Prov. Nav. Aragon, Cant.

NIHIL OBSTAT
Dr. Aloisius Goñi Urrutia
Magister Scholae
Censor.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
† Thomas, Ep. Pampilonensis



Bilebaiketa edo Zirkunzisia-Jaia

Zer adierazten du guarko eliz-jaiak?

Eliz-egutegi edo kalendarioak Jesusen Bilebaiketa edo Zirkunzisia deitzen du. Bilebaiketa gorputzan jaio ta zortzigañen egunean mutikoari (juduai) egiten zitzaien ebakia zan. Jesukristo gure Jaunari beste mutikoai bezela ebaki au egin zien legeak agindu bezela; ola ixuri zuan lenbiziko odola.

Zergatik egiten zan bilabaiketa edo ebaki au?

Ona Liburu Santuak diotena (Gen. XVII).

Ejiptoko ibaiatik Eufrates bitarteko luña Jainkoak ametsetan bere ondokoentzat eskeñi zion. Jaunak Abrahamekin alkartasun edo tratu beñi au egin zuan siñismendunen aita oni larogei ta emeretzi urte betetzen astean, ta indar geiago emateko Jaunak agertu ta esana au da: Ni Jainko guzialtsua naiz. Nere aũean ibili ta osoa izan zaite. Nere ta zure artean alkartasun edo tratua egingo det, ta izugafi ugarituko zaitut. Abraham luñean auspeztu zan. Jaunak esan zion: Ni naiz eta nere alkartasuna (tratua) zurekin izango da, ta eñi askoren aita izango zera. Efegeak zugandik jaioko dira. *Eta nere ta zure ondorengoan arteko alkartasuna jariko det betiko, ni zu*

ta zure ondorengoan Jaungoiko beti izateko. Ontarako orain efomes (peregrino) bezela bizi zeran Kanaango lur guztia zuretzat eta zure ondorengozat emango dizut ta aien Jainko, izango naiz. Zuk, ere nere alkartasun edo tratue gorde bear dezu, eta zure ondorean zure ondorengoak. Auxe da zuek eta zuen ondorengoak gorde beafeko alkartasuna. **ZUEN ARTEKO GIZONEZKO GUZTIAI BILEBAIKETA EDO ZIRKUNZISIOA EGINGO ZAIO.** Nere ta zuen arteko alkartasun edo tratua ezagunagaitzat zuen aragian bilebaiketa edo zirkunzisia egingo dezute.

Zuen artean mutiko jaiobefiai zortzigafen egunean bilebaiketa edo zirkunzisia egingo zaie. Eta nere tratua zuen aragian ezafirik egongo da *betiko alkartasuna adierazteko*. Bilebaiketa egingabeko zuetako edozeñen anima bere efitik kendua izango da, nere alkartasun edo tratua bete ez dualako.

JAINKOAK ISRAELDARAK BERE ERI BEREZITZAT AUKERATU ZITUALA ADIERAZTEKO EGITEN ZAN BILEBAIKETA EDO ZIRKUNZISIOA AIEN ARTEAN.

Eta nola egiten al zan?

Eztakigu nola egiten zan lenbizian Israeldafen artean, bai ordea azkeneko garaian. Etzan elizan egiten, baizik sinagogetan, geienean goizetan eta gutxienez amar lagunena afean. Ebakia egiten zuanaren on-

doan aitabitxia egoten zan ura egin bitartean. Berea-
la au esaten zan: Bedeinkatua izan bedi Jaungoiko gu-
re Jauna bere aginduen bidez donetu edo santutu eta
bilebaiketa edo zirkunzisia eman diguna. Eta aña-
ren aitak jafaitzen zuen: Gu bere aginduen bidez do-
netu edo santutu eta gure aña Abraham gure aita-
ren alkartsunean sartzea eman deguna.

Au egin ta Jainkoaren eriko laguna bezela arturik
gelditzen zan.

Ta bilebaiketa zerbaiten irudia al zan?

Liburu Santuen itz egiteko eraz griña txafan kon-
tra egin beaferko bufukaren irudia da ta au adieraz-
ten du. Moisesek, Jainkoaren eriar berak egindako
pekatuetaz, arek egindako mesedeetaz eta Sinai
mendian emandako Legeaz itz egin ta au esan zien:
Ta orain, o Israel, zer eskatzen dizu zure Jainko ta
Jaunak ezpada berari bildur izan, bere bidean jañai-
tu, bera maitatu ta zure Jaungoiko Jauna zure biotz
guztiz ta anima guztiz gomendu edo serbitzeko eta
zu zorioneko izateko gaur agintzen dizkizutedan be-
re Lege ta zeremoniak gordetzea? Begira nola lur ta
zerua zure Jaun eta Jaungoikoarena izanik, Jainkoa
zurekin maitetasun samuñez zure aitakin eta aiek ez-
kero aien jendakiarekin, orain ikusten dan bezela,
zuekin batu dan, *Zuen biotzeko griñai bilebaike-
ta edo zirkunzisia egin*, zuen Jaungoiko Jauna
jainkoen Jainko eta jaunen Jaun data.

Emen argi adierazten die Jainkoaren efikoak diranez, aragian bilebaiketa egiten dan bezela, biotzeko griñak ezi egin bear dirala, ura egiten zan arazoi bera-gatik.

Jeremiasek Jainkoak eragin ta bere pekatuetaz damutzeko esan ta gañerakoan bere etsai Kanaanda-fak kalte egitera etofiko zirala esan zuen. *Ona nola Jaunaren maitetasunagatik zuen buruai bilebai-keta edo zirkunzisiao egin ta zuen biotza zikin-kerietatik berezi edo aldendu, o Judako gizonak eta Jerusalengo biztanleak!* nere asefea su eřetza-learen antzera agertu ez dedin, ta sua piztu ta nork itzali izan ez dedin, zuen asmo gaiztoengatik.

Bilebaiketa edo zirkunzisiaoak animari onik egiten al zion?

Bai. Jatofizko pekatua barkatzeko Lege Zařeko sakramentua zan. Ala diote Agustin santuak, Gregorio Aundia santuak, Akinoko Tomas santuak, Suarezek eta Irugařen Inozenzio Aita Santuak. Baño etzuan pekatua, Bataioak bezela, bere indařez barkatzen, baizik adierazten zuan Jesukristo gure Jaunaren nekaldi edo pasioko siñismenaren indařez. Be-ařezko zan artzen zuanak siñismen au aitortzea, gi-zona ba zan besteren bitartez, Akinoko jakintsu ta santu aundiak dionez. Bataioaren bidez barkatzen da jatofizko pekatua, ta bilebaiketak orain pekatua barkatzeko indařik eztu.

Jesukristo gure Jaunaren Bilebaiketa

Ona gaurko Mezako Ebanjelioak diona: Añari bilebaiketa egiteko zortzi egun beteta, sabelean sortu baño len aingeruak deitu bezela Jesus izena jañ zioten.

Auxe da gaurko egunean ospatzen (zelebratzen) deguna.

Jesusen izenak zer ekartzen digu gogora?

Jesus, bere izenak adierazten duanez, gure zeruratzalea da. Gaurko egunean Elizak izen au nola jañ zitzaion gogoratuaz, nekeen bidez zeruratu nai gaituala adierazten digu, bilebaiketa egunean odola ixurtzen asi zan ta.

Gaurko Eliz-jaiak beti izen bera izan al du?

Ez. Lenbizian Eguberietako zortziurēna besterik etzan deitzen. Bilebaiketa edo zirkunzisia gutxi aitatzen zan egun onetako eliz-otoitzetan. Jai onek, gaurko eguneko eliz-otoitzetan gertatzen dan bezela, Jesusen Jaiotza ta bere Ama geiago gogorazten zituan. Baño gaurko Mezako Ebanjelioak bilebaiketaz eta Jesusen izenaz itz egiten du; onek, gaurko egunean dan bezela, bilebaiketa eta Jesusen izena goratzeko jaia izatera irixten lagundu du.

Beste zerbaitek lagundu al zuan jai au ospatsua egiteko?

Siñeske edo paganoak, gezurēzko jainkozaleak, urtearen asiera zala ta, jai lizunak egiten zituzten.

Eliz-gizonak oien kaltetan itz egin aŕen, baziran li-zunkerri oietan loitzen ziran kristauak; oietaz mindurik auxe zion Tertulianok: Kristau etziranak etzuten kristau irudi nai, baño egun oietan ba ziran kristau irudia galtzeaz lotsatzen etziran kristauak. Oiekan-dik kristauai alde egiñazteko eta pezatu aietaz penitentzi edo oben-nekea egiteko, Bilebaiketa egunean eliz-jai aundia egiten asi ziran.

Ara Toursko eliz-batzaŕe edo konzilioak diona (567): Gure aitak siñiske edo jentilen oiturak zapaltzeko ilbeltzeko kalendetan, au da lenengo egunean, letani bereziak esateko, elizetan abestu edo kantatu, eta lenengo egunean Jainkoa efukitzeko Meza emateko agindu zuten. Beraz Bilebaiketa eguna siñeske edo paganoen pekatuengatik penitentzi edo oben-nekea egiteko eguna zan kristaudentzat.

Noiz asi zan Bilebaiketako eliz-jaiia?

Ontaz itz egin duten jakintsuak, eztira uste edo iritzi berekoak. Aspaldikoa dala dirudi goian aitatutako itzai begiratu ezkerro. Eliz-batzaŕe edo konzilio onetan bildu ziranak ez dute gauza beñiaz bezela itz egiten, lendik agindua dagon gauzaz bezela baño. Beraz Bilebaiketa jaiia aspaldikoa dala aitortu beaŕean gera.

Beste zerbait gogoratzen al digu gaurko eliz-jaiiak?

Bai, ene irakurle, oso gauza samuŕa ala ere: Ama Birjiñaren amatasuna.

Lenago Eromako Elizak bi Meza zituen urtearen lenbiziko egunean: bat, Egubefi zortziurfenekoa; bestea, andre Mariaren izenean; gero bitik bat egiñaz nasi zituan eta berdin egin zuan egun onetako beste eliz-otoitzakin ere. Bezperetan batez ere Andre Mariaren amatasuna gogoratzen digu antifona edefetan.

Ta zein dira antifona oiek?

Ona bat. «Moisesek sutan ta efe gabe ikusituko sasiaren antzera zure birjintasuna gordea izan dala jakin degu: Jainkoaren Ama gure bitartekoa izan zaite».

Ona beste bat. «Birjiñagandik ezin esanezko eran zu jaiotzean Liburu Santuak esana bete zan: Gizonen enda (ařaza) zeruratzeko euria ardilařuaren gañera erortzen dan bezela jatxi ziñan: goratzen zaitugu, o gure Jainkoa».

Uřengoa ere ez tet jaři gabe utzi nai.

«O Jainkozko eskutapen edo misterio aundia! Gizonik ezagutzen etzuenaren sabela Jainkoaren eliza egin da: beragandik aragia artuaz ezta zikindu: efi guztiak, Gora zu, o Jauna esanaz etortzekoak dira».

Zer egin bear da Bilebaiketa egunean?

Elizak gogoratzen dizkigun egiak ausnartu ta go-goan ibili, batez ere Mezakoan eta Bezperetan. Jesus Auřari berak guregatik artutako nekeengatik eskeřak eman. Ama Birjiñaren amatasunagatik poztu, ta bere mirabe onak izateko laguntza eskatu. Gure biotzeko griñak ezitzeko asmo sendoak artu, ola urte

beñiari asiera egokia emateko. Ontarako agertu baita Jauna gaurko Mezako Ebanjelioan adierazten denez: «Gure Jainko eta Zeruratzaleren grazia ta erukia gure gogo munduzaleai gogor egiñaz, *neuriz, zuzen ta jaierez* gu bizitzeko agertu da».

Ta nola asmo onetan iraun?

Elizarekin batean Jaunari bere laguntza eskatuz.

Ona nola eskatzen duan gaurko egunean: «O Jainkoa... biziaren Emalea guri emateko bitartekoa izan dana (Ama Birjiña) gure alde bitartetu dala ezagutzea eman guri».

Emen Elizak, Ama Birjiñak gure alde Jainkoaren auzian egiten duan lanaren ondoren onak gure animan ikustea edo sumatzea eskatzen du.

Eskatu maiz (saritan) Ama Birjiñari eta besoetako Jesus Auzari bere laguntza, ta berak emango dizu *neuriz, zuzen eta jaierez* bizi ta zerura aiengana egunen batean juatea.

ARBELAITZ, O. M. CAP.



Jesus'en Izena



I - zen maita - ga - ri - a Je - susen i - ze -



na Ain - ge - ruak Ze - ru - tik E - kañi du - te - na.

*Ilun nabilenean
Galdu-ta bidia,
Zu zaitut ene Jesus
Zeruko argia.*

*Biotzak atsegiña
Eskatzen didala,
Zu zaitut zorionen
Ituñi ber-bera.*

*Pozez ala atsekabez
Emen nagoela,
Nai det nere ezpañetan
Izan Zure izena.*

*Elduko zaidanean
Nere azken ordua,
Biotzez deituko del
Zure izen gozua.*

1891

The following is a list of the
 names of the persons who
 were present at the meeting
 held on the 1st day of
 the month of January, 1891,
 at the residence of the
 undersigned, in the city
 of New York, for the
 purpose of organizing a
 society for the relief of
 the poor and distressed
 of the city and county
 of New York.

EŔIARENTZAKO LITURGIA



Peregrinatio ad loca sancta



TOLOSAR MARZELINO A.


O. M. CAP.

NIHIL OBSTAT
Fr. Damasus ab Inza
Censor Ord.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
Fr. Carmelus ab Iturgoyen
Minister Provincialis
Prov. Nav. Aragon, Cant.

NIHIL OBSTAT
Dr. Aloisius Goñi Urrutia
Magister Scholae
Censor.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
† **Thomas, Ep. Pampilonensis**



Peregrinatio ad loca sancta

Zer da «Peregrinatio ad loca sancta»?

Beñogei ta amar ofialde dituen idazki eder bat. Gamuñini zeritzan liburutegi-zaindaria bilatu zuan eta lenbiziko aldian 1887'gañen urtean argitaratu zuan. 380'gañen urtean Españiko andre bat Jesukristok ibili zituan eñiak ikusi eta agurtzeko asmoetan Palestinako alderdi santuetara etoñi egin zan, eta ibilaldi onen eguneroko gertaerak dakartzki idazki eder onek.

IV mendean onelako ibilaldi asko egiten ziran. Ala ere añitu egin bear gaitu andre onek ikusi izan zituan gauzak idazten ikusteak, garai artan ez baizuan iñork bere ondorengoentzat idazten. ¡Ori atsegiña, orain egiten dan bezela, gure aurfekoak idatzi izan bazuten! ofela egon eta ikusi ezdutenak ikasten baidute: baña garai artan beren ondorengoai beñirik eman beañik etzitzaiion zoritxañez iñori gogoratzen.

Idatzi izan balute, jakin nai ditugun gauza asko jakingo genituen. Andre oni esker orain badakizkigu Jerusalemegiten ziran eliz-jaiak.

Andre au nor ote zan

Berak utzitako idazkia irakuñi eskeroz, ezin de-

gu ezertxore jakin, eztu deus ere esaten eta. Orain-
daño uste auetan egon dira: andre bikain eta abera-
tsen bat zala eta bere mendean emakume batzuk zi-
tuela, Galia deritzaion aldetik etofi zala eta ofelako
gauz batzuek... Orain ordea nor eta nongoa zan ja-
kiñean gaude. Bere izena Ejeria edo Eteria zan, eta
Galizian jaioa. Bere idazkitik bakar-bakafik artuko
degu liturgi urte eta aste santuak dakařena. Orain-
daño lenbiziko mendetan egiten zan liturgia guretzat
oso iluna zan, baña Eteria ari esker, orain zearo ba-
dakigu garai artan egiten zana. Ikusi dezagun, ba
nola sortu zan gure elizetan liturgi urtea.

Eregeen eguna

Auxe da lenen-lenagotik dakařen jaia, baña Je-
susen jaiotzarekin batean elkartu bear degu, sortal-
dean garai artan biek batean egiten bai-ziran.

Jai au egiteko Kristauak Jerusalendik gure Jau-
na sortu zan Belen eřiraño joaten ziran. Gaberdian
maitiñak esaten zituzten eta, eguna ufatu baño lena-
go, beřiz Jerusalemene zeuden eta meza santua emen
ematen zan.

Guztiok jakiñik zaudete Jesusen jaiotza Bele-
nen gertatu zala...

Ořa ba, berez datofen gauza da elizkizunak
bertan egitea, eta beste jaiak ere gertatutako toki
beretan egingo dira.

Kandelari-eguna

Jesus jaio eta ondorengo beřogeai egunak igaro

dira eta legeak agintzen duan eran, Ama Birjiñak bere Semearen eskeintza egiteko Jerusalemenera joan bear du. Jose eta Mariak Jesus Aurtxoa Jaungoikoari eskeñi zioten eliza berean, jai eder au egiten zan. Etzan jai ori oraindik beste efietan ezagutzen.

Garizuma

Lenbiziko Kristauak zortzi aste bafuan eta berogegei egunen bitartean baraua gordetzen zuten, ezbaiziran lanbata eta igandea penitentzi egunak. Garizumaz ez dizutet itz egin nai, garai artan alderdi guztietan ezagutzen zan eta. Ala ere, egun artan jai aundia egiten zalako, berogegei egun aietatik bat-bakara gogoratuko dizutet. Auxe zan zazpigarren larunbata eta esaten zitzaion

Lazaroren eguna

Eliz-gira Jerusalendik Betaniarontz eguerdiko ordubata aldean ateratzen zan, eta ba zegoen eliz eder bat Lazaroren arebak Jaunarekin topo egin zuten toki ber-berean. An lenen lenena sartzen zan Obispo Jauna, praile eta kristau guztiak lagun zituela. Eresi bat esan ondoren, berealaxe Jauna eta Lazaron arebaren elkarizketa dakarren ebangelioa (Joan. XI) irakurtzen zan. Gero otoitz bat esan da, efi guztia be-
deinkatzen zuen eta jafaitzen zuten Lazaro zeritzai-
on elizaraño. Eliz au Betani erdi-erdian eta Lazaro
lurperatu zuten ilobi bere-berean egiña zegoen. Emen,

ba, salmo eta otoitz batzuk esan da gero, apaiz bategen abesten zuan S. Joaneke dakafene ebangelioa: «Cum venisset Jesus in Bethania... Oñela gertaera xamur ura kristau guzteei gogorazten zien: onelako jai aundirik egin ez afen, oraindikan jai gordetzen da.

Eramu igandea

Aste santuko jaiak egitera kristauak urutitik etortzen ziran.

Eramu eguneko Jesusen saferaren oroipenaz, atsaldeko bostetan eliz-jira ikusgarria ateratzen zan Olibeteko mendian egindako elizatik. Aurretik Obispo Jauna zihoan. Jai artan jendetza aundia batutzen zan: aur txikiak ere, oñak lufean jartzeko gauza ez izan afen, beren amaren besoetan joaten ziran, eta bere esku txiki eder politetan eramu edo olibo ostoaak zaramazkitela deadar egiten zuten «Hosanna» onetsia izan bedi Jainkoaren izenian datoñen Israel-Eregea...

Abesti xamur eta alaien artean Obispo Jauna asto baten gañean eseri ta sartzen zan. Oñela kristau guztiei, Eramu egunean Jesusek egin zuen safera, gogora ekartzen zien. Jerusalemenera eldu orduko iluntzen zuan eta Anastasi-elizan sartzen ziran denak, aratsaldeko otoitza egitera.

Astelen eta asteartian etzan gauza berezirik egiten, gutxi gora bera garizuma bitartean egiten zana besterik ez. Asteazkenean ordea asten ziran

jai aundiak, eta emendik aurrera agiri-agirian bezela ta begi aurrean ipintzen zitzaizkien Jesusen neke guztiak. Elizako otoitzak egin bezin laister, Jesus lurperatu zuten obian zegoen elizan elkartzan ziran, eta emen Apaiz batek Judasen saldukeria irakurtzen zuan... Gure andre onek dionez, jendeak negaari ematen zion.

Ostegun santua

Atsaldeko laueta Obispo Jaunak meza ematen zuan, eta denak Jauna artzen zuten: onela gogoratzen zien Jesukristok bere apostoluekin egin zuen azkeneko aparia. Jai ori orain goizean egiten da.

Ilunabarako zazpitan beste otoitz batzuk esaten zituzten. Gau ura kristauak elizan igarotzen zuten. Zerbait geroxago Jetsemanira abiatzen ziran, eta emen denak txutik egon bear izaten zuten... Nola gaba zan, zuzi-argiak eskuetan zituztela, eliza argitzen zuten.

Guztiok jakinanean zaudete, Jesukristok aldareko Sakramentua egin ondoren, Jetsemaniko mendirontz abiatu zala eta odolezko izerdi otzak eman ziola lura bustitzeraño. Emen bertan, ba, Jesusen salmena eta etsaien eskueratzea dakafen ebangelioa irakurtzen zan.

Nork asmatu nola naigabetzen zituan kristau aiek toki santu aietan bertan ofen nekegarizko gauzak ikusteako! ¿Nor oroigari onen begira jafi, begiak negarezko iturri bi egin gabe? Nork gogora ekañi de-

zake biotza osoro erdiratu gabe? An biltzen ziran kristauak beintzak negafari ematen zioten.

Ostiral santua

Eguna ufatu orduko beñiz Jerusalemene zeuden, eta atsedean txiki bat artu baño lenago, gurutzearen aúfean otoitz xamur bat egiten zuten. Txikia izan bear zuan nai ta naiez, ostiral santua elizkizunez beterik bai zegoen eta ez gera aritu bear, Jesusek bere gaiñ artutako gure erospenako lana osobetu zuan eguna zan eta.

Gurutzearen agurtza

Goizeko zortzitan edo asten zan gurutzearen agurtza, eta eguerdiraño irauten zuan; Jesus il zan toki berean egiten zan. Obispo Jauna eseri ta zegolarik, mai bat estalki batekin estali ta aúfe-aúfean ipintzen zuten: gero gurutze santua gordetzen zuan ufezko kutxa ekañirik, ideki ondoren mai gañean jartzen zuten denak agurtu zezaten. Obispo Jaunak bere eskuak gurutze gañean ipintzen zituan eta diakonoak gurutzearen kontu artuaz, agurtzak irauten zuan bitartean, banaka zetozen denak eta auzpez arpegia lufean ipiñi, ta Gurutze santua agurtzen zuten; arpegi, begi eta oñetan muñ egiten zioten, baña etzegoen eskuak gurutzean jartzerik, iñork lapurtu e-tzezan, gogor eragozten zien eta... Etzegoen alpeñik txetasun ori: aúfeneko urteetako batean kristau batek musu ematera zijoala antz-emanaz, ¡zas!

ozka egin omen zion, gurutzearen puska bat berekin gordetzeko asmoetan; ala esan zioten andre oni.

Berealaxe beste elizetara zabaldu zan elizkizun au. Gurutze-agurtza akitu orduko, Salomonen eraztuna eta aintziñean efregetzat igortzitzeko ibiltzen zuten oliontzia ekartzen zituzten, guziak agurtu zitzaten. Goizeko zortzitan asi ta eguerdiraño irauten zuan eskeroz, eztago esan bearik afigañizko jendetza elkartzen zala egun artan: ate batetik sartu egiten omen ziran, bestetik beñiz atera, nastu etzedin sartu eta ateratzen zan jendea.

Bazkal aurretik egun ari zegozkion irakurgaiak egiten ziran, eta egun artan ikusitako elizkizunekin biotz guztiak ukiturik, etxeratzen ziran. Afatsaldeko iruetarako beñiz elizan zeuden, eta Jesusen eriotza begien aurrean jartzeko asmoetan, artaz S. Juanek dakañen ebangelioa irakurtzen zan. Jesus il bezin laister, Jerusalemenera ito-itoka joan zan Jose zeritzan Arimateako gizon on prestua, eta Jaunaren gorputza Pilatori eskatu egin zion. Gauza txikia, nai badezute, baña Jesusen bizierari azkeneko gertaerak agiri-agirian jartzeagatikan, an ere irakurtzen zitzaien... Elizkizun guztiak egin orduko ilunabaña zan.

Larunbata santua

Larunbatako gauan etzan elizkizunik, aurreko gaua eta eguna elizan igarotzen baiziran: ala ere batzuek gau ori ere elizan egiten zuten. Larunbata eta

Pasko-egunaz eztingu andre onek ezertxore esaten, nunbait beste tokitan bezela egiten zan.

Eguerditik asten ziran ufengo egunerako pres-
taerak eta igandeko gaua elizan egin, ta kristau ga-
iai bataioa ematen zien. Eztu ofetaz ezer ere esaten,
baña ori jakin nai ezkeru, bere garaian bizi zan Ziri-
lo Obispoaren liburuak irakurri itzazu.

Jesusen zeruratzea eta Espiritu Santuaren etoñera

Pazko ondoko egunetaz ere eztu ezer esaten,
baizik beren elizkizunak, Jesusen antz-bideak izan
zitezen alegiñak egiten zirala. Jesusen zeruratzea eta
Espiritu Santuaren etoñera biek batean egiten ziran,
baña oraindaño ikusi degun bezela, jai guziak gerta-
tu ziran toki ber-berean egiten ziran. Ofegatikan Je-
susen zeruratzea egiteko, Olibeten zegoen elizara
igotzen ziran. Emen bildu zituan Jaunak bere Ama
guziz santa, amaika apostoluak eta ikasle asko. Be-
re Aitaren eskeñia bialtzera zijoala esanaz, eskuak
jaso ta bedeinkatu zituan eta zerurontz abiatu zan.
Gertaera au irakurtzen zutenian, zer oroigari edeña
eta maitagafia an ziran zerioneko aientzat.

Isfaeldafak beste jai-egunen artean txit ardura
aundiarekin gordetzen zuten Jainkoak Sinaiko men-
dian bere legea erakutsi zieneko oroipenean egiten
zan Pentekostes-jai. Emen bertan apostoluak bildu
ta, nork bere aldetik Jaungoikoari efegutzen zeude-
la, aize bolada baten antzeko ots bat aditu izan zan:

ots onen ondore bereala airean agertu ziran zuzko mingaiñ antzeko batzuek eta bakoitzari bere gañean jañi, ta guziak Espiritu Santuaz bete egin ziran. Onen oroipenean irakurtzen zan Siongo elizan Espiritu Santuaren etoñera dakañen ebangelioa.

Jerusalenen sortzen da liturji-urtea

Ikusi dezute noski nola egiten zan Jerusalenen liturji urtea eta batez ere Aste Santua. Onezkero oartu zerate denok elizkizun guztiak gertatu ziran toki ber-berean egiten zirala. Jesusalenek berari dago-kion liturji berezia badu. Oña emen gure liturji urtearen soñera; uts egin gabe esan dezakegu Jerusalengo alderdietan egiten ziran elizkizunak izan zirala gure liturji atsegiñaren itufiak.

Kristoren antzekoak egiten gaitu

Ontara dator liturji guzia. «Kristoren bizitzaren antzekoak egin nai gaitu, Beragana eramanez».

Oña ba... Eteriak idatzitako liturjiak urte uñetan garamazki Belenera Jesukristo jaio zan lekura. Jerusalengo eliz nagusira Jose ta Mariak Auña aurkeztu zuten tokira, Jerusalenera, bertan Eñamu egunean garailari sartu zan urira; Jaunak azkeneko aparria egin izan zuen *Zenakulo* zeritzaion apari-lekura; Olibeteko agoni-tokira; eta esate batean esateko, nekeak eramanez, il, lurperatu, beñiz piztu, zerura igo, Espiritu Santua etoñi egin zanera; leku guzi oietara ba garamazki Liturjiak. Eliz-urtea beraz gauza aue-

tatik sortua da, eta batez ere sortu izan da Jaunaren bizitza gugan sortuerazteko (esan nai det) Jaunaren bizitza erakoak guri ere eginerazteko. Zeok ori bera esan dezakezute, batez ere Elizan egiten diran gauz eta elizkizunetan oartzen ba zerate. Jakin ezazute zuen elizetan arkituko dituzutela Eteriak esanitako toki ber-berak; zuek ere aiek Jerusalemenean izan zituen asmo onak sumatuko dituzute.

Eliz-urtea irasia zegoen ba; eta berealaxe zabaldu zan. Ikusi izan degu, Eteriak onelako toki denak ikusi, ta nolako gogorapenak izan zituen: leku aiek ikustera juaten ziranak ugari asko ziran. Ez afitu geroztik, ofelako gauz edefak ikusi ta, bere efietan gauza ber-berak jartzen eta egiten; ikusten bai ziran Kandelari egunean, Lazaro egunean, Jerusalemenean egindako gauza ber-berak ala beren antzekoak.

Eldu, ba, ondo eta eutxi gauza santu oiei liburutxo au irakurtzen dezuten guztiok... Ortan saiatu eskeroz, liturjiak zuen biotzetan Jaunaren bizitza sortueraziko du eta Jesukristoren antzekoak egingo zaituzte...

Euskaldun bat bakafá eraman eta irabaziko banuke nere Jaunarentzat, ontzat emango nituzke nere neke eta lan guztiak.

TOLOSAR MARZELINO A.

O. M. Cap.

Gurutze Sainduari

Denek



Oi Gu-ru - tze-a! oi Gu-ru - tze-a; Gu-rutze



sain-du mai-te - - - a! Oi Gu-ru - - tze-a! oi Gu-ru-


Batzuek



tzte a! Gu-ru-tze Saindu mai-te - a! Zu-re be-



so-tan, oi Gu - ru - tze-a! il zai-gu Je-sus mai-te-



- a: A - ren gu - - rutzil-tzaile gaiz-to - a ni naiz, ni



be-ka-to-re - a! ni naiz, ni be-ka-to-re - - a.

Gurutze Sainduari

*Oi Gurutzea! Oi Gurutzea!
Gurutze saindu maitea. (bis)*

*Jesu Kristoren odolak zaitu
Galbarioan goñitu:
Deusek geroztik munduan ez du
Zuk bezenbat dirdiratu. (bis)*

*Bertzorduz emen etsai gaixtoa
Zutaz izan zen eoa:
Zure indara da Jainkozkoa,
Deusek ezin autsizkoa. (bis)*

*Etsaiarekin beti guduan
Emen gabiltza munduan:
Paratzen bazaizkigu buruan
Oi gu nork bentzu orduan! (bis)*

*Jesu Kristori zurekin baizen
Ez da nior jaraikitzen:
Zure bidetik da beti zuzen
Kristaua zerurat eltzen. (bis)*

«Zeruko Argia» 99 Zenbakia.



E'RIARENTZAKO LITURJIA



E'RAMU IGANDEA



ARBELAITZ
O. M. CAP.

NIHIL OBSTAT
Fr. Damasus ab Inza
Censor Ord.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
Fr. Carmelus ab Iturgoyen
Minister Provincialis
Prov. Nav. Aragon, Cant.

NIHIL OBSTAT
Dr. Aloisius Goñi Urrutia
Magister Scholae
Censor.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
† Thomas, Ep. Pampilonensis

Eta Israeldar talde guziak Moises ta Aaronen aurka (kontra) marmar egin zuen bakartadean. Ta Israelgo semeak esan zien: Jaunaren eskuz Ejitoko lufean aragi-eltzeen ondoan jafi ta ase arte ogia jaten genduanean... il bagiña obe... Zergatik atera gaituzue basamortu onetara, jendetza guztia goseak iltzeko?»?

Baño Jaunak Moisesi esan zion: «Nik euri-antzerara ogiak zerutik botako dizkizuet. Atera bedi efiia egunero ta bear dana bildu beza, ea Jainkoaren leguan dabilzan nik ikusteko. Seigafen egunean ordegorde bear dutena prestatu bear dute, ta egunero biltzen zutena baño bi aldiz geiago izan bear du». Moisesek ta Aaronen Israelgo seme guztiai esan zien: «Afatsalde, onetan Ejitotik atera zaituena Jainkoa dala jakitekoak zerate eta biar bere aunditasuna ikusiko dezute».

Onen ondotik *Graduala edo Mailakoa* bezela piska pat abestu edo kantatzen da.

Gero bereala onako *Ebanjelio* au esaten da.

EBANJELIOA (Mateo XXI, 1-9)

Orduan Jesus Jerusalemenera zijuala eta Betfaje Olibete mendiruntz bi ikasle onako au esanaz bializituan: Juan zuen afean dagon efi ofetara, ta astae-me bat bere astakumeakin lotuta ikusiko dezute: askatu eta ekafi niri, eta norbaitek zer bait esan ezkerro, Jaunak bear dituala esan ta bereala utziko ditu.

Au guzia egin zan igarle edo profetak esandako au betetzeko: Esan Siongo alabari: Ona eldu zaizu zure Efegea otzan, uztañipeko astakume eta astaemearen gañean.

Jesusen ikasleak jua ta berak esan bezela egin zuten. Astaemea ta astakumea artu eta aien gañean soñekoak jañi eta Bera gañean jañiazi zuten.

Jende askok beriz soñekoak luñera bota zituzten: beste batzuk zuaitzetatik (arboletatik) adarñak kendu ta luñean zabaltzen zituzten: auean eta atzean zijuazen jente-taldeak deadarka esateñ zuten: *Agur, o Dabiden semea. Bedeinkatua Jaunaren izenean datoñena.*

Gero onako otoitz au esaten da.

Otoitza (Eramuak bedeinkatzekoa). «Ugaritu zazu, o Jainkoa, zugañ itxaroten dutenen siñismen edo fedea eta eskeka dagozkizuenen eskeak efukiz entzun: betorgure gañera zure efuki ugaria. *Bedeinkatu bitez palma-ondo eta olioaran edo olibo-ondoan adar auek* eta Elizaren irudiak ziran Noe kutxa edo ontzitik ateratzean (irtetzean) eta Moises Israelgo semeakin Ejiotik ateratzean ugaritu ziñituen bezela, *palma-ondo ta olioaran-ondoan adarñak daramazkigun auek egite onakin* Kristoren bidera atera (irten) gaitezen; eta bere bitartez betiko pozan (zeruan) sartu gaitezen. Zurekin Espiritu Santuaz batera efuge egiten duena beragatik.

Gero *Sanctus* eta abestu edo kantatu ta Abadeak (Apaizak) *Dominus vobiscum* (Jauna zuekin

izan dedila) eta eñiak *Et cum spiritu tuo* (Baita zurekin ere) erantzun ondoan, otoitz batzuk esaten dira. Ona laburpena.

Lenbizikoan, eñamuak bedeinkatu ta donetu edo santutzeko, ta eñamuak artzen dituztenak anima ta gorputzeko osasuna irixteko, Jainkoari eskatzen zaio.

Gero eñiak *Amen* (Ala izan dedila) erantzuten du; beste otoitzen ondoan ere berdin egiten da.

Bigarrenean, Jesukristo gure Jaunak bere aurrean adanak eraman zituztenak bedeinkatu zituan bezela, eñamuak bedeinkatu ta oiek eramaten diran lekuetan bizi diranak Jaunaren bedeinkazia artzeko.

Irugarrenean. Siñismendunen (fededunen) biotzak zergatik jendea Jesukristo gure Jaunaren bidera atararik, bidean palma-ondo ta olioaran-ondoan adanak bota zituzten, ezagutu dezatela. Palma-ondoan adanak Jesukristok deabrua garaituko duala adierazten du, olioaran-ondoaren adanak beñiz animako gozotasuna nolabait ere etofi dala adierazten dute. Gero eskatzen da eriotzaren agintaritza garaitu ta Jesukristo gure Jaunaren piztueraren lagunak izateko.

Laugarrenean, uso batek olioaran-adanaren birtartez pakea gaztigatu zuan bezela, eñamuak ere kristau-eñiaren osasunerako izateko.

Boskarrenean, eñamu adanak bedeinkatu ta eñiak gorputzez Jaunaren izenean egiten dituen ze-

remoniak, animen etsaia menderatuaz animaz ere jaiera aundiz egitea.

Orain Meza emaleak isopuz iru aldiz busti ta inzentsu edo kedatza-kea oien gañera botatzen du.

Gero *Dominus vobiscum abadeak, eta eriak: Et cum spiritu tuo* esan ta seigafen otoitza esaten da.

Otoitza

Gugana makurtu eta gu zuregana jasotzeko gu zeruratzeko zure Seme Jesukristo gure Jauna biali dezun Jainkoa, *berari Jerusalem-era zijuala, Liburu Santuak diotena betetzeko siñismendunen (fededunen) taldeak jaiera txit leialaz bere soñekoak palma-ondoan adarakin bidean zabal-tzen zizkioten*: eman añen Jauna, guk berari siñismen-bidea prestatzea eta bertatik beaztopo egiteko ta gaizbideko (eskandaloko) aña kendu ta *gure egintzak zuzentasunezko adar oritsuak botatzea* bere oñarastuai jafaitzea guk irabazteko. Zurekin Espiritu Santuaz batera bizi dan Jesukristo gure Jaunagatik. Ala izan dedila.

Bedeinkazioa egin ta efamuak banatzen dira; apaizaren eskutik artzean, belauna makurtu eta Era-mua eta apaizaren eskuari muñ (musu) egiten zaio. Bitartean au abesten (kantatzen, da.

Pueri Hebraeorum (Ebreotañen Umeak)

Ebreotañen umeak olioaran-ondoan adarrik eramaz Jaunaren bidera atera (irten) ziran ojuka esanaz. Agur zeru goienez.

Ebreotaŕen umeak soñekoak luŕean zabaldu ta ojuka esaten zuten: Agur Dabiden semea! Bedeinkatua Jaunaren izenean datoŕena!

Gero Abade jaunak; *Dominus vobiscum* esan ondoan, au esaten du.

Otoitza

Jerusalenen Jesusen aŕean zugatz edo arbol a-daŕak eraman zituzten aur aien antzera garbiak izan ta aiek irabazitakoa guk irabazteko (merezi izteko) eskatzen da.

Eliz-ingurua (procesioa)

Astean, altaretik: *Procedamus in pace* (Pakean auŕeratu gaitezen) esaten da ta abeslari edo kantariak: *In nomine Christi. Amen.* (Kristoren izenean. Ala izan dedila).

Bereala elizatik kanpora ateratzen dira danak elizjira edo prozesioa egiñaz. Bitartean abeslariak (kantariak) lenago jaŕi degun Ebanjelioak diona gutxi gora bera abestu edo kantatzen dute. Eliz-jira itzultzean, elizako atearen kanpoko aldean gelditzen dira abeslari edo kantariak ez besteak. Auek elizan sartu ta atea itxi egiten dute alik eta kanpoko aldetik gurutzeaz atea jo arte.

Baŕuko abeslariak, zeruan Jesusi egin zioten aŕeragatik jai egin zuten aingeruen irudia dira; kanpoan daudenak munduan neke artean bizi dan Jesu-

kristo gure Jaunaren Elizaren irudia. Gurutzeak jo ta atea zabaltze ofek, egunen batean garutzearen bidez guretako zeruko ateak zabalik ikusiko ditugula, guk gure pekatuengatik ez galeraztera adierazten du. Bitartean abesti ezin ederago au aldizka abesten (kantatzen) da.

Gloria, laus (Aintza, gorapena, alabantza)

«Aintza edo gloria, gorapena eta omena (oorea) zuri, Kristo (Erosle Eredentore), umetalde bereziak jaierazko Agurá abestu edo kantatu zizuten ori.»

Au abestuez eriak abeslariak (kantariak) aldizka erantzuten die.

—«Zu Israelgo ezegea zera, Dabiden seme pres-tua: ó Jaunaren izenean zatozen ezege bedeinkatua.»

—Aintza edo gloria ta abar.

—Batzafe zerutar guztiak zeru goienean goratzen zaitu, baita gizon ilkoak eta zuk egindako guztiak batera.»

Ebreotaren jende taldea zure bidera palma-ondoen adakakin zure bidera atera ziran. Ona gu ere otoitzez, gogo onez, eta abesti edo kantuz.

Zu nekeak eremateko zinaudela gorapenak (alabantzak) eskeintzen zizkizuten. Guk beñiz zeruan ezege egiten dezularik abestia (kantua) abesten edo kantatzen dizugu.

Aiek atsegin eman zizuten, gure jaiera edo de-

bozioa atsegin bekizu, Efege ona, efege biotz-bera, gauza on guztiak atsegin ematen dizuten ofi.

Onen ondoan gurutzeaz elizako atea jotzen da ta gurutzearen indahez zerua idikitzen dala adierazteko bezela elizako ateak zabaltzen dira ta eliz-jirako guziak bafuan sartzen dira.

Bitartean abeslariak nola sartu zan Jesus Jerusalemenean sartu zan beren abestiaz gogorazten dute.

Eta besterik gabe bukatzen da eliz-jira eder au.

Zuk, nere irakurlea, efamuak eskuan zuazela Kristo beti zure efegetzat euki ta aren mendeko ona bezela bizitzeko asmoak egin izango dituzu noski.

ARBELAITZ, O. M. CAP.



Pueri Hebraeorum

ANT.



Pu - e - ri Hebraeo - - rum portan-tes ramos o -



li - va - rum ob-vi - a-ve-runt Do-mi - no cla-ma - -



tes et di - cen - - tes Ho san-na in ex-celsis

ANT.




Pu - e - ri Hebraeo - rum vestimen-ta proster-ne-



bant in vi - - a et clamabant di-cen - tes: Ho-sa-nna




- fi - li - o David: Be-ne-di - tus qui ve-nit in no-mi-




- ne Do - mi - ni.

Gloria, laus,



Glo - ri - a laus et ho - nor ti - bi - sit, Rex Christe



Re - demptor: cu - - i pu - e - - - ri - le de - cus



promptit Ho - san - na pi - um.

(VERSIO VASC.)

Ebreotañen umeak olibaran-ondoren adañak eramanz Jaunaren bidera atera ziran ojuka esanaz: Agur zeru goienean.

Ebreotar umeak soñekoak luñean zabaldu ta ojuka esaten zuten: Agur Dabiden Semea: Jaunaren izenea datoñena.

Aintza, gorapena eta omena (oorea) zuei, Kristo Erosle, umetalde bereziak jaierazko Aguña abestu (kantatzen) zizuten oñi.



ERIARENTZAKO LITURGIA



Aste Nagusia



ATAUNGO BONIFAZIO AITA
O. S. F. C.

NIHIL OBSTAT
Fr. Damasus ab Inza
Censor Ord.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
Fr. Carmelus ab Iturgoyen
Minister Provincialis
Prov. Nav. Aragon, Cant.

NIHIL OBSTAT
Dr. Aloisius Goñi Urrutia
Magister Scholae
Censor.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
† **Thomas, Ep. Pampilonenssi**



ASTE NAGUSIA

GARIZUMAREN azkeneko asteak izen asko izan ditu kristauen artean. Lateldunak eta gerkeldunak lenengo mendetan «*Aste aundia*», «*Aste santua*», «*Aste neketsua*», «*Aste iluna*», «*Gurutze egunak*», eta... deitu oi zuten.

«*Aste aundia*», ez beste asteak baño egun geiago dituelako, Jainkoak aste onetan gauza aundiak egin zituelako baizik. «*Aste santua*» egun auetan ospatzen diran gertaerak guziz santuak diralako.

Lenengo aldietako kristauak aste onetan izugafizko baraua egin oi zuten: askok ilunabañeko ogia, gatza eta ura besterik etzuten ezer artzen aste guzian; beste askok beñiz lenengo sei egunetan ezertxo ere etzuten artzen; eta ofegatik deitu oi zuten «*Aste neketsua*.»

Elizak bere elizkizun liburuetan aste au «*Hebdomada maior*:» *Aste nagusia* deitzen du, aste ontako elizkizunak beste guzietakoak baño nagusia-goak dira ta.

Abañi-gandea

Egun onetan Jesus gure Jauna Betanitik Jerusalem-era joan zan eta urira ospe aundian sartu zan; eta beñiro Betanira itzuli zan.

Zer elizkizun berezi egiten da egun onetan? Egundotako elizkizun berezia Jesusek Jerusalemengan egin zuan sañera ospetsuaren oroipenez egiten dan eliz-ingurua da.

Zer adierazi bear digute, kristauak elizara eramaten dituzten, adar eze oiek? Adar eze oiek, Jesus asto gainean juduen uriburura sartu zanean, ango jendeak Jesusen onetara bota eta bere inguruan eskuetan eraman zituen, olio eta palma adar ezen irudi dira; eta juduak adar oiek eskuetan zituela, Jesusen ondolik joanaz gure Jauna eñegetzat goratzen zutela adierazten zuten bezela, kristauak ere egundotako onetan, adar ezeak eskuetan dituela, gurutzearen ondolik ibiliaz, Jesukristo beren eñegetzat goratzen dutela adierazten dute.

Zergatik bedeinkatzen dira adar oiek? Elizak bere elizkizunetan añez bedeinkatu gabeko gauzarik erabiltzen ezteelako.

Adar bedeinkatuak apaizaren eskutik artzean zer egin bear da? Lenengo apaizaren eskuari eta gero adar bedeinkatuari muñ eman. Adar bedeinkatu ori eliz-ingurua egin bitartean eskuiko eskuan ibili bear da eta Meza Nagusian, Jesusen Nekaldia kantatzen edo irakurtzen dan garaian ere eskuan eduki bear da.

Eliz-ingurua egiten dan garaian elizako ateak itxitzeak eta gurutze-buruaz jo eta beñiz zabaltzeak zer esan nai du? Gure lenengo gurasoak pekatu egin

zutenean zeruko ateak itxi egin zirala eta Jesukristok bere gurutzeaz zabaldu zitula.

Astelen Santu ta *Astearte Santu* egunetan Jesus Jerusalemera joan zan, eta gauerako beñiz Betanira itzuli zan.

Asteazken Santu egun guzian Betanian egon zan Jesus. Juduen apaizburuak Jesus ondatzea erabaki zuten.

Donabereta: Matutinum Tenebrarum (Aizaroa?). Lenengo garaietan gauerdian eta kristau guziaz abestu oi zituen eliz-eresi ta otoitzak, oraiñ aurfeko aratsaldean eta apaizak eta elizgizonak bakarik abestu oi ditue.

Apaizak abesten ari diran bitartean, eresi edo *Psalmus* bakoitzaren buruan itzaltzen diran, argi gofi aiek zer esan nai due? Argi gofi aiek, Jesusen Nekaldi garaian, aren ikasle ta apostoloak, Jaunarenganako uste eta maitasunean oztu eta il egin zirala esan nai due.

Eta azkenera arte pizturik irauten duan argi txuri bakara Andre Mariren irudi da eta, Jesus bere etsaien eskuetan ainbesteko nekez beterik ikusi afen, bere Seme eta Jaunarenganako maitetasun sutsua etzitzaiola batere epeldu eta, naiz oñazerik gofien erdian il, beñiz ez iltzeko piztuko zan ustea etzuela galdu adierazten digu.

Baita ere argizai txuri ura Jesus beraren irudi da: Bere etsai gaiztoak, gurutzean il zan ezkerro, aren aztarna guziaz uratu zituela uste zuen; baño

Jesus piztu egin zan ata gauza guziak bere araura befitu egin zitun; ofegatik argi txuria itzali gabe izkutatu eta beñiro agertzen da.

Azkenean egiten dan ilunpe eta dinbi-danbako arek Jesus il zaneko luñikara eta iluna adieratzen du.

Garizumako bostgañen igande aurreko larunbata ezkerro, elizak beltzez jantzirik daude, santuen irudi guziak estalirik eta alde guzietan iluntasuna ta naigabea besterik ez tala ikusten ematen du. Baño azkeneko egun auetan iluntasun ori aundiagotzen da eta Elizak beste gauza guziaz azturik, gizonen gaiztakeriak eta Jesusen neke eta eriotzaz gogoeta egiteak ekañi dion naigabea, iluntasuna eta samintasuna bere semeai adierazten du bere ardura guzia.

Ostegun santua

Egun onetan Jesus gure Jaunak bere azken aparria egin zuan, bere ikasleai oñak garbitu zizkien, Eukaristia erakutsi zuan, lenengo apaizak egin zitun; eta Jetsemaniko baratzara otoitz egitera joan zan. Judasek bere salkeria egin zuan eta Jesus Anas eta Kaipasen etxera eramana izan zan. Pedro ikasleak gaur gauean bere jainkozko Irakaslea iru aldiz ukatu zuan.

Egun onetan, batez ere Meza Nagusian, Jesukristok Eukaristia erakutsi eta lenengo apaizak egin zituen azken aparria gogoratzen digu Eliz Amak.

Gaurko Meza Nagusian apaizak bi osti *konsagraren* ditu: bat, bestetan bezela, berak artzen du eta bestea biarko jasotzen da.

Oroipen-etxea zer da? Ostegun santuan gure Jauna edukitzeko elizetan jasotzen dan ooltza edo jaun-alkiak deritza *oroipen-etxea*.

Eta oroipen-etxe ofek zer esan nai du? Oroipen-etxe ori Jesusen ilobiaren irudi da eta, batez ere, gure Jaunak bere azken aparian bere burua gure onerako, ogi eta ardo antzpean utzi zigunaren oroigaritzat jasotzen da.

Zergatik erantzitzen dira meza-maiak ostegun santu egunean? Jesukristo bere Nekaldian biluzi egin zutela eta bere soñekoak zatitu eta txotx egin zituela adierazteko.

Zergatik ez dira jotzen elizako ezkiñak, txintxin eta elizsoñuak ostegun santutik larunbata arte? Jesusen nekaldi eta eriotzak Elizari ekañi dion atseka-be eta iluntasuna adierazteagatik; baita ere lenengo kristauen arteko oitura gogoratzeagatik. Lenengo kristauen artean etzan elizatan ezkiñak eta txintxiñak, eta kristauai oltxo batzuek joaz deitu oi zitzaien elizkizunetara.

Ostegun santuko beste eginkizun bat oñak *garbitzea* da. Jesusek bere ikasleai oñak garbitu zitzaizkien oroipenez, eliz-buruak beren elizetan eta aundizki askok beren etxetan oñak garbitu oi dizkie amairu aubei edo amairu beartsui.

Urte bafuan erabili bear diran olio santuak egun onetan onetsitzen ditue Gotzai jaunak beren eliz-nagusietan.

Ostiral santua

Goizean juduen apaizak Jesus Pilatoren eta Eroderen etxera eramán zuten eta beñiro Pilatorenera itzuli zuten. Gogorki zigortu eta arantzazko koroia jantzi zioten eta amafak aldean eriotzarako erabakia eman zioten. Amaikak ondoan Kalbariorako bideari lotu zitzaion. Amabietan gurutzean josi zuten eta iruetan il zan; eta ilunabañean eortzi edo obiratu zuten.

Gure Eliz Ama Santuak Jesus gurutzetua ipintzen digu gaur gure begien aurrean, bere neke-oñazeak ikusirik gure Jauna eruki dezagun, eta gure Jainkoa oréla il duten gure gaiztakeriaz damaturik, aren piztueraren ondoren bikañak artzeko gai izan gaitezén.

Gaurko elizkizunetan lenengo gure Jaunaren Nekaldia irakurtzen da Joanes deunaren arauz. Ondoren, Jesus gizon guzien onerako il zan da, Elizak gizon guzien alde otoitz egiten du, otoitz bakoitzaren aurretik belaunikatzen dalarik.

Juduen alde otoitz egitekoan ezta belaunikatzen, aiek gure Jaunari egun onetan egin zizkioten iri eta belaunekatze ifizkoakgatik.

Gero gurutzeari gaineko zapi ubela kentzerakoan, elizan arkitzen diran, kristau guziak gure Jauna iru aldiz jauresten dute, iru aldiz belaunikatzen diralarik; eta gero guziak, banan, apaiz buruagandik

asita, Gurutzearen aúrean belaunikatu eta muñ ematen diote gure Jaunaren irudi agurgafiari.

Larunbata santua

Jesus ilobian. Andre Mariren bakartasun samiña.

Kristauen lenengo garaietan etzan mezarik ematen egun onetan; eta, garai artan gauerdian egiten ziran, Jesusen piztuerazko elizkizunak oraiñ larunbata goizean egiten dira. Lenago elizkizun oiek larunbata afatsaldeko iruetan asi eta igande goizeko Meza nagusiaz bukatzen ziran; eta kristau guziak joan oi ziran elizkizun oietara.

Su beriak zer esan nai du? Su beña Jesusen piztueraren irudi da. Eta mukila buruan ipintzen diran *iru argi oiek* Jainkoaren irutasuna adierazten digute; eta meza-afi nagusiaren eskuialdean ipintzen dan *pazko-argizaia* ere Jesus piztuaren irudi da. Oregatik Jesusen piztueraren irudiz larunbata santu goizean lenengo aldiz piztu eta Jaunaren zeruetara igotze egunean Meza nagusian, ebanjelio ondoan, itzaltzen da, geiago ez piztutzeko. Argizai ori gurutze antzean ezartzen zazkion bots *intzentsu-aleak* Jesus gure Jaunaren bost zaurien irudi dira.

Larunbata santuko Meza nagusian asita, ainbeste bider esaten dan *Alleluia* itzak zer esan nai du? Itz ori ibereratikoa da eta «*Jainkoa goratu ezazue* edo *Gora Jainkoa*» esan nai du.

Gaur arte Eliza beltzez jantzita zegon; bañan gaur soñeko belzak erantzi eta zuriz jantzi da; eta,

bere senar garbia, gure Jaun eta Jabea ilen artetik piztu dalako eta bere piztueraz bere etsai guziak garaitu ditulako, pozez bete da, eta gu ere poztu gaitetzela esaten digu bere seme-alaba guzioi.

Lenagoko garaietan Pazkoa egun sentian, kristauak, gau-otoitzak asi baño len, elkañi musu eman oi zioten, «*Surrexit Dominus: Jauna piztu da*» esanaz.

Pizkunde igandea.

Gaur egunez, goiz-goizean, Jesus gure Zeruratzailea ilen artetik piztu zan, bere ilobiaren begira zeuden gizonak itxuturik uzten zituelarik bere argi aundiaz.

Gaurko jaia «*Solemnitas solemnitatum: jairik nagusiena*» deitzen du Elizak.

Ijitoaen mofontza gogofetik atera zituanaren oroigaritzat jai aundia egiteko agindu zien Jainkoak Israeldañai, eta beren jairik nagusiena Pazkoa zan. Jesukristo gure jaunak, gurutzean il eta beñiz piztu zalarik, gizonan mendekoa baño askoz ere lotsagarigoa dan, etsaiaren mofontzatik atera gaitu eta oregatik bide aundiagoa degu kristauak egun au ospatzeko.

Lenago Pazkoa ondoko aste guzian jai osoa egi ten zuten kristauak. Eta gaur egunean ere Elizak aste guzian Jesukristoren piztuera zorionekoa ospa tzen du Mezakoan eta bere Otoitzetan.

«*Surrexit Dominus de sepulcro. Alleluia! Jauna piztu da ilobitik, Gora Jaungoikoa!*»

Ataungo Bonifazio Aita. O. S. F. C.

O Jesus Gurutzera

Astiro, biot-biotzetik.



O Je - sus gu - ru - tze - - ra ni - ga -



tik i - go - ze - ra - - - - - na. Ni jo - ta ze - a - tze -



- ra maiz be - ar - tzen zai - tu da - - - - - na.



P Orain zu - re - al - de - ra bi - ur - tzen naiz, Jaugoiko



ona. Ai! O - roi zai - te o - do - - la ne - re - tzat



eman de - zu - - la.

O Jesus gurutzera

*Zure amorioak
Ezbanau, Jauna, askatzen
Nere biotz gaiztoak
Suaren gai nau egiten;
Ai! zure erabakiak
Gogorki nau ikaratzen:
Ai! oroi zaite odola
Neretzat eman dezula.*

*Bear nion bizia
Eman ene egileari,
Eman diot guzia
Ai ene mundu txarari;
Nere itxumen aundia,
Su-leza det irabazi:
Ai! oroi zaite odola
Neretzat eman dezula.*

*Deitu nauzu eztiki
Askotan mintzo gozoaz,
Ni egon naiz eroki
Txoraturikan munduaz:
Orain joango naiz beti
Ongian aufferatuaz,
Ai! oroi zaite odola
Neretzat eman dezula.*

EÑIARENTZAKO LITURJIA



Corpus Christi-ren edo Aldareko
Sakramentu Santuaren jai-eguna



ALTZO-AZPIKO DIEGO A.
O. M. CAP.

NIHIL OBSTAT
Fr. Damasus ab Inza
Censor Ord.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
Fr. Carmelus ab Iturgoyen
Minister Provincialis
Prov. Nav. Aragon, Cant.

NIHIL OBSTAT
Dr. Aloisius Goñi Urrutia
Magister Scholae
Censor.

IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
† Thomas, Ep. Pampilonensis



Corpus Christi-ren edo Aldareko Sakramentu Santuaren jai-eguna

Korpus=eguna, jai=egun audia

Jesukristo, Gure Jaunak, egindako gauzik aundiena, bere bizitzako eskutuki (misterio) guzien oroigarri ta bilduna ta eskutuki oien guzien jaraipena Eukaristia da. Eukaristian, Meza Santuan, ospatzen degu bere gizon-egitea ta jaiotzea; Eukaristian, Meza Santuan, bere Nekaldia ta Piztuera; Eukaristian, Meza Santuan, bere Igokundea ta Espiritu Santuaren Etoñera.

Osti Santuan dago Jesukristo, Jaungoiko gizon egiña. Noiz sortu da osti ortan apaizak konsagraziozko itzak esatean ezpada? Mezan zabaltzen dizkigu Kalbarioko irabaziak. Nola? Ardoa alde batetik eta ostia bestetik konsagraturik, era ortan Nekaldian egin zan gorputz eta odolaren berextea aditzera emanik. Ostian dago Jesukristo piztu ta zeru-

ra igoa, piztuera ta ilezkortasunaren azia artzen dutenentzat izateko, ondo artzen dutenai zeruratzeko indaia emateko ta, Penteskostes egunean apostolui bezela, Espiritu Santua bere aragiaren bitartez emateko. Eukaristia, Aldareko Sakramantu Santua, ospatzean, Ama Birjiñaren eta Santuen jaiak ospatzen ditugu, Eukaristia, Aldareko Sakramentu Santua, izan bai zan santuen sinismen, garbitasun ta indaia-
ren ituaia. ¡Jai-egun aundia da ba benetan, Eukaristiaren eguna, Korpus eguna!

Jai au, noiz asi zan?

Lenbiziko kristauak Aldareko Sakramentu Santuaren jai ostegun Santuan egiten zuten; egun ofi «Natalis Calicis» kalizaren jaiotza deitzen zitzaion. Baño egun ori Jesukristo Gure Jaunaren, Nekaldi edo Pasioaren gogorapenez ilundua gertatzen zan.

Amabigaren gizaldiraño Eukaristiarenganako agurtza kaskaia zan. Mezan etzan gizozte edo jendea belauniko jartzen. Etzegon oteundegi edo tabernakulorik, ezta sagraiorik ere aldarean; Jauna sakristian edo elizako orma edo abe batean gordetzen zan, beroietan egindako zuloan. Andik bakafik ateratzen zan gaxo eta martiriai jazarpen-aldi edo persekuzioa garaiarera emateko; etzan agirian jartzen, etzan ibildeun edo prozesioan ibiltzen; etzan berakin

onespenik ematen; eta, Jauna eramatekoan, etzan orain bezela uskurtzera edo zeremonirik; aufak edo edozeñek ematen zien gaxoai beñiz askotan ogi kon-sagratuaren puska...

Jauna bera zijoan Aldareko Sakramentu Santuarenganako oneraspena geitzera; Bera zijoan Sakramentu Santuaren jaia eskatzera... Amairugañen gizartea asia zan. Lieja (Belgika) ondoan, Kornilon mendiko Agustinetan, bizi zan 1192'gañen urtean jaiotako monja gazte bat, Rezianako Juliana Zorionduna. Ona, jaungoikozkoia zan eta Jaunak bere bidez gauza aundiak egin nai zituen. Amasei urte bete ezkerro safitan era afigañiz ikustera ematen zion Osti Santua ilargi dirdiratsu baten irudian, baño leño ilun ta zuzen batek alde batetik bestera zulatzen zuela. Leño ilun ortaz aditzera eman nai zion, Ostegun Santuaz gañera, Aldareko Sakramentu Santuaren jai bat Elizan bear zala sinismena sendotzeko, Sakramentu onen kaltezko bidegabekeriak ordaintzeko eta gizonak Sakramentu ortan argia ta indaña arkitu zezaten.

Juliana Zoriondunaren lanez Irutasun Donearen ondoko ostegunean egiten asi zan; ta azkenean Juliana Zorionduaren lagun santu batek, Eba zeritzonak eskaturik, Eliza guzira zabaldu zuen jai au ta XIVgañen Urbano, Aita Santuak, 1264 gañen urtean. XXII gañen Juan, Aita Santuak, jai nagusi au zortziuñenakin egiteko ta Sakramentu Santua ibildeun edo prozesioan eramateko agindu zuan. II'gañen

Paulok Sakramentu Santuaren anaidiak ontzat eman zituen ta XIII'gafen Gregoriok Eromako Anaidia barkapen ugariz aberastu zuen.

Jai au, zertarako jai zan?

Jai jai zan, dio Tomás Santuak, «Sakramentu ikusgai batean, Osti donean, Jesukristoren egoera ariagarria agurtzeko; ainbeste alatz (milagro) Sakramentu batean egiten ditun Jaungoikoaren altsutasuna goratzeko; onegite oren osasuntsu ta gozoagatik eskeñak emateko».

Irutasun Donearen igande ondoko jai au egiteko aukeratu zan «Pentekostes edo Espiritu Santuaren Etoñera ondoren Apostoluen biotzak Sakramentu onen eskutukiak aditu ta ulertzeko argiturik zeudelako ta garai ontan kristauak sakramentu ori artzen asi ziralako».

Sakramentu Donearen Añendia (Ofizioa)

Ama Eliza Doneak otoitz-sorta bat eskeintzen dio egunero Jaungoikoari. Otoitz-sorta oren erdian dago Meza ta Mezaren inguruan burestun (koro) bat bezela egiten dute apaizak eta erlijiosoak egunero esan bear duten Añendi edo Ofizioaren orduak. Maitinak, gaueko otoitza dira; Laudes, egun sentikoa; Prima, Tertia, Sexta, Nona ta Bezperak egunean tarteka, ta Konpletak oieratzekoan esatekoak.

Sakramentu Donearen Añendi (ofizioa) Akino-

tar Tomás Deunak egiña da, guziz ariñafia bai ol-
dozpen (pensamentu) sakonengatik, bai esateko
eragatik. Eresiak, itz lanak, irakurgaiak jainko-iz-
tilari (teologo) aundi onen buru argi ta esaera gar-
bia azaltzen dute.

Lenengo bezperak

Bost eresi-aufeko abeskiño edo antifonak, bost
eresi (salmoak), ereserkiak (himno), magnifikatko
antifonak, Magnifikat berak eta otoitzak egiten di-
tuzte.

Ara nola agertzen dan Jauna eresi-aufeko abes-
kiñotan: Jesús da egiazko Melkisedek, Jaungoikoa-
ren Apaiz Nagusia; ez ditu eskeintzen Apaiz aiek
bezela lufeko ogi ta ardoa, baizikan zeruko ogi ta
ardoa, bere Gorputza ta Odola (1^{en} ant.)... Jesus
da zerutik jetxitako mana, betiko bizitza animari
ematen diona (2^{en} ant.)... Israeldaren Famili-buruak
Jaunari eskeiak emateko bazkalondoa edanontzia
goratzen zuten, guk Jaungoikoaren Odolaz betetako
edanontzia goratzen degu Jaunari eskeiak emateko
(3^{en} ant.)... Olio-ondo-landare gazteen antzera fa-
mili ugari bateko umeak Eukaristi-mai inguruan exe-
ritzen gera (4^{en} ant.)... Babiloniko joputzatik itzuli
ondoren Judako eñiak izan zuen ongundea, Eukaris-
tiak dakarkigunaren iruditxo baizik ezta (5^{en} ant.).

«Pange lingua» ereserkiak Eukaristiaren iraste
edo ipintzea abesten (kantatzen) du.

Maitinak

Deia (invitatoria) guziz edefa da. «Gurtu dezagun Efegeen Efegea, jaten dutenai animako gizen-tasuna ematen diena».

«Sacris sollemniis» ereserkia Eukaristiaren izti (tratadu) bat da. «Biotzez, abotsez ta egitez abestu dezagun... Eukaristia artzeko bafengo prestaera eraman dezagun... Judutafen aparria ta apari beña nola jañi ziran esaten da... Jauna ondo artzearen ondorenak... Eukaristiaren ministro edo apaizak... Jauna sakramentuan gurturik aintza eman dezaiogun».

Lenengo nokturnoko eresi-aufeko abeskiñotan Jesus Eukaristian agertzen da «igali (frutuak) bere garaian dakazkian zuaitza bezela (1^a), pakearen emai-lea (2^a), mezan opari zafak bañon opari ohea (3^a). Bigafen nokturnokoetan, indaf guziz altsukoa (1^a), ondasun guzien ekarlea (2^a); ofegatik mai ontan pozik exeri bear gera (3^a). Irugafen nokturnokoetan agertzen da animaren gaztetetasuna befitzeko argi ta indaf emai-lea (1^a), Jaunaren ontasunaren goratzalea bezela (2^a); ofegatik gure aldareak maite bear ditugu (3^a).

Laudes

Eresi-aufeko abeskiñotan Goiko Jakinduriak Eukaristiko bazkarira deitzen gaitu (1^a); Eukaristia da egiazko mana (2^a); efegeen jana (3^a); apaizak beste gizonak bañon santuagoak izan bear dute.

(4^a); Eukaristia, ondo artzen duenarentzat, aintza ta ondasunen agintza da (5^a). «Verbum Supernum» ereserkian Meza ta Gurutzeko opariak bat dirala aitortzen da «Jaungoikoarengandik ateratako itza bere azken egunetara zan ta orduan janari eman zitzaien... Jaiotzean laguna egin zan; apaltzean, jana; iltzean, ordaña; zeruan, saria.»

Meza

Afendi edo Ofizioko oldozpen edo pensamentu berberak ditu. «Lauda Sion» Sequentia aŕigafia da; Sakramentu Santuaren Kredoaz bezelaxe da ta bertan azaltzen dira Aldareko Sakramentu Doneaz sinistu beaf ditugun egi guziak. Otoitzetan eskatzen da Eukaristia izan dedila Elizaren batasuneko egile ta agiria, ta betiko bizitzaren baitura. Abestiak ere oso edefak dira.

Ibildeun edo prozesioa

Meza ondoren edo atsaldean prozesio urteko nagusiena egiten da Sakramentu Santua kaletatik eramane. XXII'gafen Juan, Aita Santuak, agindu zuan kale ta enparantzak bafena Korpus egunean Jauna eramateko efi guzietan. Oitura edef au pixkax pixkaka zabaldu zan ta V'gafen Martin, Aita Santuak († 1431) prozesiora juaten ziranai barkapen bereziak eman zizkien.

Ostelari edo protestanteak prozesio ontaz pafegiten zuten. Sorginkeri, gezuŕa, jainko-izunen

gurtza deitzen zuten: baño katoliko-efiak prozesio oni gero eta nagusitasun geiago ematen zion, efietako alkartasun guziak juaten zirala, Liburu Santuetako egite galenak antzeztutzen zirala ta abar.

Eukaristiaganako agiriko adorazioa edo gurtza ere aundiagoa egin zan; mezako konsagrazioan ostia ta kaliza jasotzen ziran; gorputzez egiten diran gurtzak ere aundiagoak ziran. Osti Santua Jaungoiko-leku edo kustodian jartzen asi zan. XVII' garfen gizalditik Jaun agiriakin bedinkazioak eman ziran; gizaldi ontatik zabaldu zan baita beste oitura eder bat: Jesukristo, Gure Jaunari, adixkiderik onenari bezela, Sakramentu Santuan ikustaldia egiteko oitura.

Ikaskizunak

1. Kristau guziak alegiña egiñ bear dute Korpus egunean meza nagusi ta prozesiora oneraspen aundienaz juateko ta beroietan Elizaren otoitzai jafaitzeko.


2. Ardura aundiz artu bear dute elizako bidea ikastea, batez ere jaietan Sakramentu Santuarekin ematen dan bedeinkazioa artzeko. Adixkiderik onenari ikustalditxo bat egiten ikastea, alpefik ez legoke.

3. Kristauak gogoan artu bear dute beren oneraspen edo deboziorik edefena meza santua ondo entzutea eta Jauna ondo artzea dala.


Altzo=Azpiko Diego A.

O. M. Cap.


GORA ZAGUN



Go-ra za - gun mis - - - te ri - o aun di - - -



- - - a Jainko Jau - na Os - - ti-an es - ta - li - - -



a Zu - - - ek ainge - ru - ek, ze - ru - ko gen - de



a, a - - do - ra za - zu - - e gu - - re E - rége -



a gu - re E - re - - ge - - - a

Maitetasun, ospe azkengabea
Irutasun santuak dituela;
Oore iruei batasun berean,
Orain eta beti mendeen mendetan.

EŔIARENTZAKO LITURGIA



Iĭen-eguna



Tolosar Marzelino Abak

O. M. Cap.

NIHIL OBSTAT
Fr. Damasus ab Inza
Censor Ord.



IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
Fr. Carmelus ab Iturgoyen
Minister Provincialis
Prov. Nav. Aragon, Cant.

NIHIL OBSTAT
Dr. Aloisius Goñi Urrutia
Magister Scholae
Censor.



IMPRIMATUR
Pampilonae 2 Februarii 1931
† Thomas, Ep. Pampilonensis



Īen-eguna

Jai edeġa eta atsegiġa

Zeruratu diran anima guztien oroimenaz jai eder bat egiten du Eliza gure amak Azaroaren lenbiziko egunean. Santu guztiak, bat ere utzi gabe, goratzen ditu egun oġetan, eta munduko negartegi ontan bizi diran bere ume guztientzat eskatu zizkion Jainkoari esker ugari beren bitartez: oġetarako asmatu zuan Domine Sainduren jai edeġa.

Garbitokiko bere umien oroimenerako ere bai...

Garbitokian (Purgatorioan) ere ba ditu beste ume asko, eta an egon bear dute beren animen garbitasuna iritxi eta azkeneko zoġak Jainkoari ordaindu arte. Eztira esateko an eraman bear dituzten neke ta miġak.

Eta neke oietatik laixter ateratzeko zerbait egin ote dezakegu? Aditu oien negar min-miġek! Entzun aien oiu efukigafiak! Misereremini mei saltem vos, amici mei... Efuki zaitezte zuek nere adiskideak beintzat... Gure eskuetan dago, ba, anima gaixo oien zoriona. Oġa zertarako jafi duan Elizak Garbi-

tokiko bere umien oroimenerako beste jai eder bat. Azaroko ilabete guztia, baña batez ere bigarren eguna, aukeratu zuan, alegin guztiaz saiatu gaitezten induljentzi eta lanbide asko anima gaixoen alde eskeintzen, lenbailen zeruratu ditezen. Oregatikan Azaroko bigarren egunari deitzen diogu *ilen eguna*...

Garairik egokiena aukeratu zuan?

Bai orixe, garai ontako gauza guztiak otoitzara deitzen bai gaituzte. Ikusi zenituen len zugaitz edefak oso apain jantzi-ta; orain ordea oritu dira bere ostoa, ilundu da zeru urdiña, aize gogor eta otzak zuaitz-osto oriak bide bazteretara bota ditu, eta laxter gure mendi eta oianak beltzez jantziko dira. Inguruko gauza guztiak eta batez ere il-ezkilen ots ilunak gure barnera digute: Añen otoitz egin ezazute zuek nere adiskideak, etzun itzatzute gure negar-miñak biotz oneko guztiok.

Noiztik datorkigu jai ori? Lorea azian

Cluny zeritzan fraile-etxeko Odilon santuaren bidez ipiñi zuan Jainkoak ilen-jai oñen atsegiña. Egia da Odilon santuak asmatu baño lenago, etzala orain bezela Garbitokiko anima gaixoen alde oñen jai gozorik egiten. Baña lorea azian egoten dan bezela, eliza batzuk bere artean bizi ziran animentzat egiten zituzten elizkizunetan, zegoen gaur gordetzen degun jaia.

Maiatzeko Pentekoste biaramonean, il ziran anima gaixoen alde meza emateko agintzen zuan Sebilako Isidorok (580-636) egindako prailien bizierak. Fuldan (Alemania) zegoen fraile-etxean ildako guztien onean meza eta eliz otoitz-batzuk agindu zituan Eigil santuak Neguilaren 17'nean, etxe santu aren eragilea egun artan il zalako. Metz deritzaion urian Amalariok erakutsi zuan, gauza oso egokia izango zala anima gaixoen alde santu guztien egunean egiten dan erako jaia egitea; ořela, zion santu onek, gure otbitz eta mezaen bidez autsiko ditugu beren kateak.

Amargaren mendean eliza guztietan

Odilon santuak jaři zuan lenbizi bere etxean eta berealaxe zabaldu zan eliza guztiera, Azaroaren bigaren eguna aukeratu zuan ildako anima guztien alde Jainkoari eřegutzeko.

Ara nola dakařen Jotsaldok, santu onen bizi-tzaren idazleak: «Gure nagusi izan zan Odilon santuak agindu zuan gure etxe guztietan Azaroaren bigaren egunean jai eder bat il diran animen alde: onetarako aien alde mezak emanerazi zituan, otoitz geigo ipiñiaz, limosna geixago ematea nai izan zuan, ořela deabruak geiago galdu dezan eta Garbitokian dauden anima gaixoetaz eřukitu dedin Jainkoa».

998 urtean egin zan lenbiziko aldiz ilen eguna Azaroaren bigaren egunean. Zerbait geroxago (1030) agertu zan Cluny'n.

Statutum S. Odilonis de defunctis

Onek zearo zekafen egin bear zana. Ale batzuek besterik ez dizkizutet ekañiko.

Azaroaren lenengo egunean, ostegun santuan bezelaxe, ogi pusken batzuek eta ardoa emango zaizkie agertzen diran beartsuei. Bazkalondoan gelditu egin dana limosneroak bildu bear izaten zuan. Atsaldean ezkiñak guztiak joko dituzte eta bereala ñen otoitzak esango dira.

Urango egunean maitiñak esan da, jai aundietan bezela ñen meza nagusia emango da, ofetarako ezkiñak guztiak jendea ekañieraziko dute, eta bi anaien artean abestuko dute mezako «Tractoa».

Anima gaixoen alde emango dituzte beren mezak apaiz guztiak eta gañerabeartsuei ere bazkaria emango zaie.

Nai degu eta agintzen degu Cluny'n eta beste gure etxetan gorde dezatela eman degun lege au: eta beste eliza batzuek jañaitzen bagaituzte, zeruak bedeinkatu ditzala.

Anima gaixoen alde maitetasuna laixter piztu zan beste praile eta elizetan. Taspá, Ixecegia izan ziran lenenak, eta gero bereala zabaldu zan Lorena, Borgoña, España, Inglateña eta Alemaniko beste eliza askotan: onetarako etzuten lan gutxi egin Aita Santuak, batez ere Silvestre II, Juan XVIII eta Leon IX. Nunbait kristauak ikusi zuten gauza ona zala, eñi guztietan jai aundien artean sartu zuten-eta.

Esker aundiak

Benediktinoen etxean sortu zalako ilen-jaia, *toties quoties* deitzen zaion barkapena eman zien Aita Santuak, eta Azaroko bigarren egunean beren eliz guztietan irabazi zezaken Garbitokian dauden animen alde. Lenbailen zeruratu zitezene negar miñezko ilunpeta neketsu ontan arkitzen diran animak, indulgentzi ori eliz guztietara zabaldu zuan 1914'ko Garagañilaren 25'ean eman zuan erabakian. 1748'ko Dagonilean Benedicto XIV'nak baimena eman zien ilen egunean anima gaixo oien alde iru meza emateko, eta oien nekeak arintzeagatik eliz guztiei eman zien esker aundi ori.

Zer erakusten digute ilen-egunako otoitzak eta mezak

Gauza asko. Lenen-lenena begiramentu aundia izan bear diegula gorputzai lur ematekoan, gorputzen bidez gauza onak egin bai zituzten animak. Asko maite izan degunen gauzaren bat, esate baterako, aitaren efaztuna, ala berak erabili izan duen soñekoa edo beste gauzen bat guk ainbestekotzat badegu, itzal-aundiz eta maite-maiteki begiratzen ditugula, zez nolako begiramentua izan bear ez ote diegu gure gorputzai, batez ere gure arimakin ain elkartuak eta itsatsiak bezela egonak badira?

Siñisgabeak bai eta guk...?

Onelaxen egiten zuten siñisgabeak ere bere progeutan eta guk beñiz piztu egin bear degula siñisten degun ezkerro ez ote degu berak ainbat bedere egin bear? (II Noct.). Ilen eguneko otoitz guztiak gogora dakarkigute gure piztueraren oroimena. «Siñisten det nere Jaungoikoa bizi dala, eta azkeneko egunean neroni ere lur azpitik piztu egingo naiz eta orain dedan gorputza ber-berakin ikusi bear detela nere Jauna» (I Responso...) «Egitan esaten dizutet, elduko dala Jainkoaren Semearen otsa adituko duten ordua eta ongi egin dutenak bizitzeko piztuko dira; gaizki egin dutenak, beñiz, betiko negargartegirako. (Ebang.) Apostoluak ere bere aldetik onela zion: «Baldin Kristo ilen artetik piztu dala predikatzen bada, nola esaten dute batzuek zuen artean, eztala ilen piztuerarik? Baldin ilen piztuerarik ezpada Kristo ere piztu izan. Eta baldin Kristo Kristo piztu izan ezpada, beraz zuen siñismena ere gezufeskoa edo utsa da.» (Epist. ad Cor.)

Gorputza, dio Paulo Apostoluak, ereiten da ustelkor, piztu egiten da ordea ez-ustelkor; ereiten da *aunatu*, baña piztu egiten da garailari; ereiten da eri, piztu beñiz sendo: ereiten da gorputz pekatari eta piztu egiten da garbi-garbi. Irísta batean eta begi keiñu batez azken turuta-soñua aditu bezin laster, ilak piztu egingo dira ere ustelkor eta gu ere aldatu egingo gera. Eta gorputz au ez-ustelko-

rtasunaz jantzi danian, ordun egingo da idatzi ta dagoena: «iretsi izan da eriotza bere gurendan. Eriotza!! non da zure gurenda?... Ilobia!! non da zure eztena? Baña eskeñak Jainkoari, gurenda eman bai-digu Jesukristo gure lagunaz. (Epist. ad Cor.)

Ba ote da Garbitokia?

Badala garbitokia mundu ontatik pekatuari dagozkion zoñak kendu gabe irten diran animentzat, erakusten digu ilen-egunak.

Eliz-batzar asko izan dira garbitokia badala esan digutenak. Lyon, Florenzia eta Trentokoak erabaki duten dotriñan argi ta garbi dago. Auxe erakusten digu Testamentu zañak, esaten digunian nola Judas Makabeok Jerusalemenera bialdu zuan diruketa aundia, gudan il ziran gudarien ordez abere batzuk Jainkoari eskeintzeko, eta gero dio gauza oso ona dala ilen alde otoitz egitea. Ebangelioak ere badakarkigu ba dala toki ilun bat, andik iñor aterako eztanik azkeneko zoña kendu arte. Ez dizkizutet ekañi nai aita santuen eta kristau eztiranjakintsuen iritziak, luze gi egingo nintzake-ta. Baña pozik dakarkizutet protestante batek diona: «Iltzen diranen artean, onegiak dira geienak sulezeko, zerurako ordea gaixtoegiak.»

Zerbait egin dezakegu anima oien zoñak kentzeko?

Nai ezkerro animai laguntzeko aberastasun aundiak dauzkagu. Bere nekeak kentzeko eta su ura

itzaltzeko asko balio dute gure otoitzak, barauak, limosnak, meza santuak, anima aien alde Jainkoari eskeñi dezazkiekegun ofosarioak, eta irabazi ditzazkegun induljentzi guztiak; auxe gogoraazten digu ilen egunak.

Ilén alde askotan efegutzen du Eliza gure amak; egunero ainbeste mezetan eta eliz-otoitzetan eskatzen dio Jainkoari aien zoriona. Ilén egunian ainbat mila miloi induljentzi oso, meza eta otoitz bere ume maite aien orde ezkeintzen dizkio Jainkoari.

Bearturik gaude anima oiei laguntzera?

Ilén alde efegutu ezazute esuten digu Elizak, berak bada ez dezakete ezertxore egin toki ikaragarri artatik ateratzeko, guk ordea asko lagundu dezakiegu. Oroitzen zerate Piszina probatika deitzen zan putzuen gertatu zanaz?

Ogei ta emezortzi urte aietan an arkitzen zan gizon elbarri bat jizaxoa!! inor etzeukan aingerua zetofenean lenengo sartu zezan. Onek baño gutxigo egin dezakete anima gaixo oiek. Onegatikan, dio Tomas santuak, ilén alde egindako otoitza bizi diranen aldekoa baño ohea dala, aiek beafean egon da ez dezaketelako ezertxore egin.

Otoitz egin ezazute, diote adiskidetasunak eta esker onak. An izan leike egotea zure gurasoak, ongileak, irakasleak, zure adiskideak... Entzun, ba, aien negar miñak: «miseremini mei saltem vos amici mei».

Zer egin bear degu?

Askok, norbait iltzen zaienian, negar ugari egi-ten dute, ilen gorputzak lorez ederki apaintzen du-te... Eztago gaizki egiña!! Baña ez dizkie toki ilun eta nekegafi artako ateak idekiko ez zuen negafak, ezta zuen lore usaidunak eta apañak, baizik zuen otoitz, meza eta induljentziak.

Antziñean bazan «Erospen» deitzen zan ontzi bat. Urtean aldi batzuetan Españiko itxasotik aldegiñaz, Aprika aldera joaten zan moroen eskuetan erori ziran kristauak erosteko bear zan dirua zera-mala. Ura eldu orduko, antxe zeuden gaixoaiek toki ikaragafi artako nekeak akituko zeralako.ustean.

Nere semeak, anaiak edo adiskideen batek e-man ote dizu nere askatasuna iristeko bear dan di-rua? galdetzen zuten kristau aiek. Ezezkoa aditzen zutenian eztira esateko aien atsekabe ta naigabeak. Baña ¡jura poza! ¡ze atsegiña! «Gaurgero libre zau-de» aditzen zutenian.

Nere kristau maiteak, oien erara aingeruak je-isten dira ilen egunian garbitokira anima gaixoen zo-fak garbitzeko egin ditugun lanbide onakin. Anima aiek ere galdetzen die: Ba ote da norbait nitzaz oroi-tzen danik? Eta aingeruak erantzuten die batzuei: «Zu lurperatuta zauden toki ura lorez ederki apaindu ta naikoa iruditu zaie». Besteai beñiz: «¡Poztu zai-tezte, autsi dira zuen kateak, zuen ordez zoñak or-daindu dituztelako.»

Gure eskuetan dago

Gure eskuetan dagonezkero aien zoriona, ez al diegu neke aietatik laixter ateratzen lagunduko? Jauna artu ezazu, mezak entzun eta albadezu emanerazi; ere bai limosnatxoan bat eman eta al dituzun lanbide onak eta induljentziak eskeñi Jainkoari eta aien zoñak garbituko dituzu.

Saiatu zaitezte, ba, egunero eta batez ere Azaroko egun guztietan alegiñ guztian induljenti ta lanbide asko garbitokiko anima gaixoen alde eskeintzen, lenbailen zeruratu ditezen eta zoragañizko toki artan zeoñen laguntzale izan ditezen.

Onela aien eta zeoñen zoriona iristen dezu, bada Jaunak esanik dauka: «Beati misericordes»: Zorionekoak efukitsu (ufikalkor) direnak, berak ere iritxiko baidute efukitasuna.

Tolosaf Marzelino Abak

O. M. Cap.



BIZI LABUR



Bi - zi - - a la-bur, il - tze - - a



se-gur gau-za du - da-rik ga-be - - a on-du gai-



te-zen ga-rai dan ar - - te o - rain da, arain or-du



a kristau zo - ri-ga-be - - a.

Mundu ontatik joan ta
Bereala da epaitza;
Antxe pakoitzak eman beaŕko
Jaunari bere kontua
Jaunari kontu zoŕotza.

Aldia batez geroztik
Aldegin bear mundutik;
Iñork ezdaki noiz edo nola
Biziaz gabeturik
Aldegin bear mundutik.

BRITISH LIBRARY

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.



